



B A N D O A :

GAIA: HERRI-LANGILE BATEN KONTRATAZIOA

1.- Deialdia

Lan metaketa dela eta, Elduaingo Udalak herri-langile bat kontratuko da, lanaldi osoan eta hiru hilabeteko epean. (Ekainaren 15etik irailaren 15era).

2.- Bete beharreko funtzioak

Egin beharreko lanak, besteak beste, honakoak izango dira:

- ❖ Bide publikoaren garbitasunari dagozkion lanak egitea, dauden makina edo orga erabiliz horretarako, ezarritako irizpideen arabera.
- ❖ Garraiatu beharreko materialak kargatu eta deskargatu.
- ❖ Segurtasun eta Higieneko arauak betetzea.
- ❖ Lorategi, mendi, nekazal bide, parke eta abarren mantenimenduari dagozkien lanak egin (belarra moztu eta jaso, zuhaitzak eta berroak kimatu, ureztatu, etab) lan plangintza ezarritako irizpideen arabera.
- ❖ Oro har lanpostuaren arabera agintzen zaizkion zeregin guztiak betetzea, hau da, lorazaintza, obrak edo garbitasuneko peoi lanak.

3.- Hautagaiek bete beharreko baldintzak

- Adina: 18tik 60 urtera arte
- Langabezian egotea
- B gida baimena izatea
- Euskara jakitea

Lanpostu honetan interesaturik dauden pertsona guztiek, **ekainaren 1tik 10era** (biak barne), Lanbide Enplegu Zerbitzuko bulegoetan eman beharko dute izena.

Langilearen betebeharrei eta lan baldintzei buruz (lansaiola, ordutegia, soldata...), Lanbiden informatuko zaituztete.

Langilearen kontratazioa **2020ko ekainaren 15ean** hasiko da.

Elduain, 2020ko maiatzaren 29a.

Alkatea,

Iz.: Oihana Amundarain Zubillaga